

# Luku Gotzaina, bostehun urte geroago (1495-1995)

**JXUTU,** Artzallus-ek Euskal Herriko Gotzainen eztabaida piztu duen egun beretan bete da, Joan Bernal Diaz de Luku-ren (Luco eta Lugo ere idatzi izan denaren) bosgarren jaiotza-mendeurrena.

Gure Elizbarrutietan ezagutu den Gotzainik handienetakoa izan zen Diaz de Luku Kalahorrako apezpiku 'arabar' hau (1545-1556), eta Elizbarrutian euskararen eliz erabilpena sustatzen saiatutako honek merezi du euskaltzaleon artean bere mende-muga gogoraraztea.

Joan Bernal, azken albisteez diotenez, ez zen Luku jaiotza, Sevillan baizik: abuztuaren 19an bete da haren jaiotza bostehungarren urte-muga (1495). Hala ere, arabartzat jo dezakegu: jatorriz lehenengo, haren ama Arabako Luku-n sortua zelako; bihotzez bigarren, Luku herriari bere ondarearen parte bat utzi ziolako, eta azken egoitzaz, gero, sepultura ere Luku elizan duela.

Elizgizon baten sasiko semea zen Joan Bernal, eta, hortaz, eliz hierarkian gora egin behar du gizon eta idazle hau, bere argi-eragine eta itzalekin. Erreforma hura batez ere agintari eta legegizon bezala begiratu zuten: baina, bestalde, eraberrikuntzak onarri zindotzen jatorreko asmoz, errealitate sozialari aurrez aurre begiratu zuten. Kabineteko gobernari bakartia baino batez ere eguneroko aldarreen artean gogoeta pragmatikoa lantzen ahalginduz zen Luku, agintari eliztarrentzat lehenik, eta herri-agintarientzat gero.

Bere belaunaldiko arazo larri handien erantzuteko, talaia garaietatik begiratu ahal izan zuen ingurua: Amerika aurkitu berria, Indietako Kontseiluraren barneketik; Europa, Frantzia eta Italiako ibildaldietan; Eliza osoa, Trentoko Kontzilioetik. Eliza Erromatarren ustelkeriak garbitzeko, Kuriaren trikimaluak utzi eta Enperadorearen bide praktikoa eta zorrotzagoetara etorri zen.

### Idazle eta botere-gizona

Ernamizentuz kultural, erlijio-gatazka eta Amerikaren konkista: XVI. mendea bete zuten hiru gertabide nagusi horietako bitan esku zuzena izan zuen Luku. Koroaren politika amerikarra gidatzen (1531-39), eta Trentoko Batzarren erreforma-irizpideak batez ere aldakuntza praktikoa bultzatzen (1546-52). Elizbarrutian bertan egindakoa ahanzi gabe (Sinodoa, 1555).

Idazle oparoa izan zen Luku, legegizon eta jakitun kanonista. Hogeita hamarren bat obra idatzi zituen, eta bat edo beste zabalkunde handikoa, gainera. Aro Modernoan Euskal Herriak ezagutu zuen Gotzainik estimagarrienetakoa gertatu zen, azken buruan.

### Giza eskubideen arrastoan

Luku harreman zuzenetan egon zen mende hartako beste bi euskaldun handirekin, orduan eta geroztik historian sona bete izan duten Ignazio Loiolakoarekin eta Frai Joan Zumarraga durangarrarekin. Kasik pentsatu ere egin liteke ez ote gauden euskal *troika* baten aurrean (laukotea osatzeko Burgostik Frantzisko de Vitoria ere ekarri nahi ez bada, behintzat).

Zumarragak bertatik bertara, Loiolak bere misiolarien bidez eta Luku Indietako Kontseilutik ezagutu zuten Amerikako konkistaren triskantza, eta herri- eta giza eskubideen aurkako hanga ataramendu gaiztoa. Eta hartaz eztabaida haragi bizitan zenean esku hartu zuten jokabide berriak asmatzeko.

Luku, mende hartako agintari eta teorikari humanistekin harremanetan izan zen, Bartolome de las Casas, Zumarraga edo Vasco de Quiroga-rekin. Bestalde, Ordena misiolari handiei idatzi ere egin zuten —anbiguitatez beteriko misio-lan kolonialean— laguntza eta garbitasun hobetik eman zezaten (1532), geroago San Ignazio-rekin egin zuen bezala.

### Euskal Herrian ere

Gizartearen ezagumendu on bat zuela izendatu zuten Luku Kalahorrako Gotzain: Sevillan jaiotako ama euskaldunaren semea bere herriara zetorren, ba. Izan ere, jakina denez, Elizbarrutit horren barnean baitzegoen Deba arrotik Nerbioainokoa, Araba gehiena barne. Bere jatorrikoen Gotzain izateko aukera zuten,

beraz. Zoritxarrez, 1546tik 1552ra ino Trenton egon behar izan zuen, baina han ere ez zuen ahanzi bere Elizbarrutia.

Euskal Herrian eliz lanek behar zuten eskalduntasunaz ideiak garbi zituen Luku, eta hori ez zen gutxi garai haietan. Testu aipagarriak daude honetaz, beraren eta San Ignazio-ren arteko eskutitzetan, izan ere adiskide izan baitziren biok, eta beren arteko gutunetan behin eta berriz ageri zaigu euskalduneko zerreginetan euskara aintzakotzat hartu behararen leloa.

Gotzain izendatu zuten bezain laster idatzi zion San Ignazioi Valladolid-etik, euskal herrietako zenbait josulagun euskaldun bidal zezala eskatuz: «... le pido por merced (...) que me envie alguno de sus compañeros, especialmente de los bascongados (euskaldunak, alegia); pues V.m. sabe bien cuánto necesidad tiene aquella tierra, donde se habla esta lengua...» (1545-04-10).

San Ignazio, bere aldetik, ahalginduz zen, dakigunez, eskaerari ahalik eta ongien erantzuten, eta Gotzainak sorterritarrekiko erakutsi zion arretak hunkituta, 'euskaldunen babesletzat' aitortu zuen Luku. Egia esan, Gotzainaren lehen eske hura ez baitzen, gainera, uneko beroaldi bat izan, eta 1551 eta 1552an ere berriro adierazi izan zion bere kezka Luku apezpikari: «... la imposibilidad que ay para que allí se pueda plantar, sino por personas naturales de la misma lengua...», eta honelakoek izan dezatela arreta «... en predicar en su lengua las más veces que pudieren...», gehitzen du.

Diaz de Luku hauxe dugu, hortaz, ondoko mendeko Elizaren hizkuntz arau hain aipatuen aitondaria (sinodalena, alegia). Egia da, garai hartako planteamondeek badituzte bere alde mugatu eta interesatuak, baina euskararekiko eta euskal herritasunarekiko onginalia, irizpideak eta politika honela definitu nahi izan zituen ongi irabazita du gure hizkuntzaren historian leku aipagarri bat. Goratzarre, beraz, Joan Bernal Diaz de Luku-ri!

### JOSEBA INTXAUSTI

HISTORIALARIA ETA BAGERAKIDEA

## BERRIAKZIRI



**INAKI ANASAGASTI**  
EAIren bozeramaile Espainiako Kongresuan DEIA

«GAL Bartzelotan aritu balitz, ikertzearen alde egongo litzateke CiU»



**MARIANO RAJOY**  
Ppko idazkariorde nagusia EL PAIS

«Euskal Herrian, gure arrakasta neurri batean Arzalluzen diskurtsoari zor diogu»



**JOHN HUME**  
Ipar Irlandako Alderdi Sozialdemokratiko buruzagia EGIN

«IRAK armak entregatzea ez zen Sinn Feinek elkarrizketetan parte hartzeko baldintzat jarri»



**RICHARD N. GARDINER**  
EEBEn Espainiako enbaxadore EL DIARIO VASCO

«Estatu Batuek ez dute inolako gogorik munduko jandarma izateko»

# Palestinarren 'Autonomia' Hebron-en agerian

**BAKEA** dugu Ekialde ertainean... edo horixe esan nahi digute behintzat! Gizon ospetsu batzuk, Arafat ezin ezagunagoa barne, oso hitzarmen baikorra sinatu dute. Egia izango al da? Ez horixe!

Palestinar herri sufrituak bere historia-latzaren momenturik gaitzenetarikoa bizi dute. Zeren gaineko 'boterea' eskuratzean ari da? Bere lurraldea kontrolatuko al du? Ez gero. 67. urtean okupatutako lurretan dauden hiri batzuren gaineko kontrol mugatua baino ez du izango. Sionisten Eretz Israel (Israel handia) delakoan gehiengo judutarra beste zenbait urtez ziurtatzeko, palestinar batzuk sobran zeuden eta horixe lortu du Israelek Arafaten 'bordate onaren' laguntzaz. Sasiatonomia horren iruzurra azken boladan nabari bihurtu den Hebron hirian ikusten da argi.

Hebron (arabieraz El Khalil) Zisjordaniako hegoaldean dago, Jerusalemetik 30 kilometro eskasera. Ertlijotz saindua da kristau, musulman nahiz juduentzat. Biztanleaz ia erabat ara-

biarra. Zergaitik sortu da arazo berezia? Lurralde okupatutako beste lekuetan ez bezala (Jerusalen salbu) azken hamarkadetan sortutako kolonia juduak ez daudelako hiririk kanpo. Hebron-en bertan barne muinetan ere zenbait judu, eta ez nolana hikoak, sartu direlako: estatu sionistaren konplizitate osoaz Gush Emunim eta Kach bezalako talde eskuindar ultraortodoxoetako kideek lehen Qiryat Arba palestinarren zoritxarreako ospetsu bilakatu den asentamentua sortu zuten arabiarrei lapurtutako lurretan. Geroago etxe batzuk hartu zituzten Hebrongo erdialdean bertan. Esan behar da judu hauek, gehienak EEBBetako ghetto-etatik etorriak, bereziki arazistak dira: adibidez Baruch Goldstein kolonoak Hebrongo meskitan eginko sarraskiari erabateko oneritza ematen zituen, (milioi bat arabiarrek ez dutelako judu baten bizitza baino), eta «gure lurra eta ez haiena delako», musulmanek Cordoba «barea eta ez beste inoren dela» esateko duten arrazoi berberaz.

Negoziaketetarako emaitzetan ikus daiteke zelako garaipena lortu duten sionistek: lehen Zisjordaniako kolono guztiak joatea eskatzen zuten Arafatek, lojikoak denez; gero erdialdekoak Qiryat Arbara mugitzea; azkenik kolono bakar bat ere ez da lekualdutako, eta beren segurtasuna israeldarren esku egongo da; beraz sekta bateko 200 kidek 150.000 palestinarren gainean agintzen dute.

Israelek ez du ezer galdu negoziaketetan; Israel Handia osoan egongo da judurik, palestinarrek espaziorik gabe utziz. Gaza hiperarabiarrean ere koloniek hor diraute, errekurtsok israeldarren esku, Jerusalem sionistek bahitua... El Khalil-ek ondo erakusten digu Israel zer emateko prest dagoen: hutsaren hurrengoa. Irtenebide bakarra? Palestinar guztiak benetako estatua, ahalik eta laisterren.

### ANDONI GOROSTIAGA

IPES-EKO NAZIOARTE BATZORDEKOA

## ZAKILIXUT

© Olariagak

